

JOSE ANTONIO ARANA BIBLIOGRAFOA

Atarikoa

Jose Antonio Arana garai bateko humanista haietakoa izan zela, nik baino lehenago esanda dago. Nik baino gehiago ezagutzen duen batek esanda, Jose Antonio aita intelektualtzat daukan batek hain zuzen ere. Eta guztiz bat nator dioenean Jose Antoniok Ernazimenduaren eta humanismoaren ezaugarriak ederrenak zituela, hala nola, antzinatearen miresmena, historiarena, mitologiarena, mundua ulertzeko era hori islatzen dutela bere lanek eta gizakia bera eta gizakiaren balioak goraipatzen zituela.

Liburuaren iraultzarekin bat egiten du Ernazimenduak. Liburuzalea da Ernazimendua, Jose Antonio zen bezala.

Jose Antonioren zaletasun eta maitasunen artean seguru liburua ez dela azkena. Bere hitzak literalki hartuz gero, liburua ez da sartzen lehen hiruretan. Baina nago hautu batek bestea ez duela ezabatzen, eta Jose Antonioren bihotz handian denak kabitzen direla erraz.

Zein da Jose Antonio? Bere burua definitzeko eskatuta, hala erantzuten dio kazetariari:

"Borondate handiko gizona, gauza asko egin nahi dituen baina denetara heldu ezinda dabilena. Euskara eta musika ez

ezik, beste amodio handi bat dauka: familia. Horixe da nire maitasunik handiena: familia". (*Jakin*, 161, 2007)

Hiru maitasun horietatik oso urruti ez da egongo liburua. Liburu artean igaro baita bere bizitza eta libururik gabe nekez irudika baitezakegu gizona. Oraintxe bertan ere, dagoen lekuan dagoela, bere zerua liburu artean legoke. Izan ere, Jose Antoniok modu grinatsuan maite eta miretsi du liburua, ez soilki jakituriaren transmisore den heinean bakarrik, objektu gisa fisikoki ere bai. Maitasun osoa.

Berriz diot Jose Antonio humanista peto-petoa izan dela (matematikari, ekonomialari ere bai), kultura zabalekoa, interesgune askotarikoa, bilatzaile amorratua izan dela. Baina nik alderditxo bat landuko dut. Hobe esan, landu bainoago hainbat zertzelada eman, Jose Antonioren liburuzaletasunari buruz.

Badakit kontzeptu zabala dela liburuzaletasuna, oso zabala. Nola koka Jose Antonio horren barruan? Irakurle aspergabea izateaz gainera zer besterik da?: bibliofiloa?, bibliologoa?, bibliografoa?, bibliotekaria? Horiek guztiak kabitzen dira Jose Antonioren liburuzaletasunean.

Gauza jakina da bibliotekaria izan dela, profesionalki 1978 ondoren. Baina nork uka bibliofiloa edo bibliografoa izan denik? Berak, Jon Bilbao lagunaren ondoan jarrita, bere burua bibliografotzat zeukan.

"Hark zioenez (Jon Bilbaok, alegia) bereiztu beharra dago bibliotekaria eta bibliografoa. Ni are gehiago naiz bibliografoa bibliotekaria baino. Bibliotekaria izateko, badut taldea egin beharrekoa moldatzeko. Bibliografoa izatea besterik da. Bibliotekaria izan naizen arren, gehiago estimatzen dut, neure buruarentzat, bibliografo titulua. Hala esaten zuen Jon Bilbaok ere, bera bibliografoa zela". (*Jakin*, 161, 2007)

Beste leku batean ere berriz dio bibliografoa dela bera. Are zehatzago: bibliografoa ez eze bio-bibliografoa dela. 1992an Iker sailean Luis Villasante bere herrikideaz lan bati titulu horixe eman zion: "Luis Villasanteren bio-bibliografia". Espresuki aitortu gabe ere azterlan asko eta asko ditu estimu handitan zeuzkan pertsonaien bio-bibliografia direnak. Aipagarrienen artean, esandakoaz gainera, Jose Ignacio Arana, Seber Altube, Angel Allendesalazar, edo Louis-Lucien Bonaparte, Resurrección María Azkue, Bonifazio Irigarai, Julio Urkixo, Aita Donostia.

Sarrera hitz hauen ondoren ikus ditzagun Jose Antonio bibliotekari eta bibliografoaren jarduera eta jarrera batzuk.

Liburuzaletasun goiztiarra

Gaztetxo zelarik hasi zen biblioteka lanetan, 14-15 urterekin jada bibliotekari laguntzaile, Euskaltzaindian profesionalki

hasi baino 33 urte lehenago.

Hamalau urterekin Arteako seminarioko biblioteka muntatzen laguntzen dio Andres Ibañez apaizari. Handik Gasteizko seminariora doalarik, hamabost urterekin Andres Mañarikua irakasle eta maisuari laguntzen dio biblioteka lanetan. Bide emankorraren abiapuntua izan ziren hasiera haiek: "Beraz, biblioteka eta liburu mundu hori hamahiru, hamalau urtetik hona ezagutzen dut. Orduz gero ibili naiz liburuekin, bibliotekak antolatzen, katalogatzen..." (*Jakin*, 161, 2007).

Goiz hasi zen bibliotekari lanetan, eta goiz egin zuen topo zentsurarekin, liburu eta zentsura garai haietan txanpon beraren bi aurpegi baitziren maiz. Zentsura eklesiastikoa, eta zentsura administratibo politikoa, askotan eskutik hartuta. Seminarioko biblioteka hartan ere baziren debekaturiko liburuak, irakurle arruntaren eskuetan utzi ezin zitezkeenak. Jose Antoniok bazuen asmorik haietara iristeko. Eta berak kontatzen du Danteren eta Unamunoren lan debekatuak nola hartu eta ohe azpian gorde ohi zituen, esaterako. Jose Antonioren jakinminak ez baitzuen debekurik onartzen, ez eta ulertzen ahal liburu "gaiztorik" egon zitekeenik.

Garai haietan, baina, liburu gaiztoak ez ziren bat edo bi. Asko ziren.

Bitan banatzen ziren liburuak: onak eta txarrak. Onak eta txarrak Indexaren ikuspegitik, ez balio literarioengatik. Erromako Index orokor hura bertakotu egin ziguten bi jesuita euskaldunek, Ladron de Guevarak (*Novelistas buenos y*

malos) eta A. Garmendia de Otaolak (*Lecturas buenas y malas a la luz del dogma y la moral*). Danteren *Divina Comedia* ez dakit baina jakina da Unamunoren obra batzuk kondenagarritzat emanak zirela.

Azkue Bibliotekan 33 urte

Jose Antonio Arana 33 urtez egon da Euskararen Akademiako Bibliotekari lotuta.

1978an hasi zen profesionalki bibliotekan lanean, 47 urte zituela.

Hasi, Alfontso Irigoien bibliotekari akademikoaren laguntzaile moduan hasi zen, kontratupeko lehen liburuzaina bera delarik, eta handik gutxira Azkue Bibliotekako Idazkari izendatu zuten, eta 1993an bibliotekari akademiko.

Lanak lan eta karguak kargu, Jose Antonio Arana da Azkue Bibliotekaren sortzaile nagusia. Izenetik hasita izanera. Izenaren proposamena berea izan zen. 2.500 erregistrarekin aurkitu zuen liburutegi hura 64.000 liburutara eraman zuen.

Txikia zen orduan Akademiaren liburutegia. Txikia, eta okerrago dena, eskasa: balioko alerik ez liburutetan, taxuzko aldizkaririk ere ez, bildumak osatzeke, Jose Antoniori sinestera.

Bere hitzak dira:

"Hura desastre izugarria zen. Nondik heldu ez zegoen han, baina apurka-apurka zer edo zer egin genuen. (...) Taxuzko liburutegia egiten hasi nintzen. Euskarazkoak eta, beste zenbait hizkuntzatan egonagatik, Euskal Herriari buruzko liburuen bilduma egiten hasi nintzen" (*Jakin*, 161, 2007).

Euskararen Akademia batek behar zuen biblioteka hornitu eta aberasteko asmoz, plangintza sistematikoa antolatu zuen 80ko hamarkadan, liburuak, aldizkariak, artxibo funtsak inguratzeko. Hamalau bat funts inportante eskuratu zituen, harremanez eta albo informazioez baliatuz. Horietakoak dira, adibidez, Juan Carlos Guerraren biblioteka eta artxiboa, Jon Bilbaoren biblioteka zati aukeratu bat, Zaitegiren artxibo eta biblioteka, Odon Apraiz, Tauer edo Broussainenak.

Liburu ale, bilduma eta aldizkarien bila nola hasi zen harrotasun puntuarekin kontatzen zuen, nola argitaletxeen katalogoak astintzen, liburu dendak arakatzen, zokoak miatzen, komentuak bisitatzen.

Lorturiko emaitzekin pozik eta harro azaltzen zen 1992an, eta gerora ere ez zuen ezkututzen satisfakzioa. Bi argudio nagusi aurkeztu ohi zituen: bata ondarea, hots, artxibo funtsak eta 64.000 item biltzen zuen biblioteka. Eta bi: Azkue Bibliotekaren katalogoa, lehen euskal katalogoa.

Ereduaren azpimarra berezia ezartzen zion katalogoari:

"Gure bibliotekaren katalogoa euskaraz eginda dago. Gure asmoa, Euskal Herriko biblioteka guztietarako balioko duen eredu bat egitea zen, euskaraz katalogatzeko sistema, euskaraz egina eta Euskaltzaindiaren onespina izango zuena" (*Jakin*, 161, 2007).

"Ez da harrokeria, baina lan asko egin dut nik hor", zioen Jose Antoniok.

Biblioteca Nazionale gogoan

Aipatu berriak ditugu bere hitzak: "Euskal Herriari buruzko liburuen bilduma egiten hasi nintzen".

Azkue Bibliotekaren asmoa, Jose Antonioren baitan, biblioteka akademiko arrunt batetik harago doalakoan nago. Euskal Herriak urte haietan pairatzen zuen biblioteka munduko panorama negargarria erremediatu nahi zuen eta bereziki Biblioteca Nazionalaren gabezia.

Jose Antonio Arana, izan ere, Biblioteca Nazionalaren aldekoa zen, leku fisikoa behar zuen Biblioteca Nazionale baten aldekoa. 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko lehen aldian behintzat, gaurkotasun handiko gaia zen. Aldarria, eta

gabeziaren kezka, Eusko Legebiltzarreraino iritsi zen. 1989an hainbat liburutegiri eskatzen zaio txosten bat egitea. Talde horrek, "Grupo de Biblioteca Vasca" izenekoa, 1992ko txostenean, Biblioteca Vasca delakoaren sortzea proposatzen du, baina Nazional deitura gabe. Proposamen horrek berak ere ez du biderik egiten orduan. Lortzen dena Katalogo kolektiboa egitea da.

Jose Antonio talde horretan zegoen abiapuntuan, baina utzi egin zuen, hain zuzen ere BNren ikuspegirik ez zelako lantzen. Honela kontatzen du berak:

"Orduantxe hasi ginen pentsatzen liburutegi nazionala behar genuela. Horretarako, lehenengo pausoa, herrietako bibliotekak ondo antolatu eta katalogatzea izan behar duela erabaki genuen. Katalogo kolektibo bat egin behar zen, Euskal Herri osokoa. Bilerak egiten hasi ginen: Deustuko liburuzaina, Antso Jakitunakoa, Donostiako udal liburutegiko arduraduna, besteren bat eta ni neu... Betikoa: nork bere iritzia zuen baina besterena kontuan hartzeko asmorik ez. Ez zen akordiorik izan. Orduan ere protagonismoa nahi zuten batzuek, "Gure biblioteca" gora eta "Gure biblioteca" behera. Hortaz, nik dena jaso, artxibatu, eta kito! Beste bide bat saiatu nuen, nik asmoarekin segitzen nuen eta. Biblioteca kolektiboa ez ezik, liburutegi nazionala nuen gogoan". (*Jakin*, 161, 2007).

Katalogo kolektiboa ez zen Jose Antonioarentzat aski, eta

berak Biblioteca Nazionale nahi zuen. Euskaltzaindiak ezin zuen hutsune hori osorik bete, baina bai bere esparruan. Eta esparru hori, Jose Antonioren baitan, ez da linguistika, filologia, euskara, hizkuntza, baizik eta askoz zabalagoa: Euskal Herria, humanitateak, historia, antropologia, musika, zuzenbidea, folklorea, erlijioa... Jose Antoniok proposaturiko eta mamituriko eredu horretakoa da gaurko Azkue Biblioteca.

Gutenbergzale

Nire Euskaltzaindiko sarrerakoan, bere erantzunean, liburuaren hegaldi luzea egin zuen: "Alexandriatik digitalizaziora". Liburuaren ibilaldi luze horretatik Jose Antoniok gehien maite duena Gutenberg aroa da, inprimategia, paper euskarriko liburua.

Digitalaren iraultza berandu agertzen dela bere biografian, esan dezakegu. Eta, ematen duenez, Jose Antoniok ez zion konfiantza handiegirik egin. Hala iruditzen zait bere bi testigantza irakurrita. Bata 1994koa, hain zuzen ere Euskal Herriko inprimategien historia idatzi zuenekoa. Liburu elektronikoaren pantaila hotzari liburu klasikoaren berotasuna kontrajartzen dio: papera ukitzea, paperaren eta tintaren usaina, inprimaketaren eta koadernaketaren dotorezia:

"Bostehun urte iraun dute paperak eta inprentak gure garaia heldu arte. Baina Zibernetikaren bidetik (1948) zabaltzen ari den informatika munduak, zalantzak jartzen dizkie zientzia

gizabanakoei liburuaren iraupenaz. Aurtengo uztailaren 5ean bildu ziren Bartzelonan munduko hainbat argitaldari, eta informatikaren aurrean liburuak izango duen arriskua aztertu zuten. Pantaila batean ikus daiteke edozein testu, irudi edo ilustrazio, CD-ROM edo disko optikoaren bidez. Baina Inge Feltrinelli italiarrak esan zuenez, pentsa ere ezin daitekeen gauza da, *hondartzan ordenagailuaren pantailan Passoliniren olerki bat irakurtzea*. Bostehun urtetan irabazi dugun ohitura, hots, papera ukitzea, liburuaren edertasuna - ondo eginda dagoenean - gozatzea, papera eta tinta usaintzea, eta abar, ezin da pantaila hotzaren emaitzaz trukatu. Artisauen inprimaketa dotoreak eta koadernaketa ikusgarri eta ukigarriak, edukinaz aparte, ezin daitezke pantaila baten emaitzarekin konparatu. Edertasun eta gozamen hori mantentzearen, zenbait liburu zaharren faksimilak egiten direnean, paper-mota eta usaina ere birsortzen dute oraingo argitaldaries. Teknikari eta zientziari dagozkien ikerketa eta txostenak disketetan emango zaizkigu; baina kultura arloko gaiak liburuetan jasotzen jarraituko dugu".

Hamabost urte beranduago ere, lehengo lepotik du burua Jose Antoniok, nahiz eta ordurako edizio digitalak sekulako aurrerapenak eginak zituen.

2009an, nire sarrera hitzaldiko erantzunean, liburu digitalaren aurrean mesfidati defentsiban agertu zen:

"Katalogoetatik aparte, badaude Bibliotekonomian aztertu eta

ikertu behar diren beste gai interesgarriak: bibliografia bera, bibliomania, liburuak jakina, letra tipoak, zentsurak, inprimategiak, ilustrazioak eta azken batean bibliotekak. Eta une honetan, denen gainetik eta denak ezabatzeko gogoz informatikako "autopista" nondik dabilzan azkar eta liskarzale hainbat programa. Alexandria Bibliotekatik, Gutenbergen gainetik, digitalizazio mundura heldu gara. Eta badirudi orain arte egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Baina liburuen eta argitalpenen munduan bizi garenok ez gaude mundu berri horren beldurrez kikildurik. Aurrerapen guztiak onartu behar dira eta pozik onartu ere. Baina jada mundu zaharreko diren liburuak, paperezkoak esan nahi dut, badituzte beraien bertuteak, eta ez dira berehala desagertuko, etsaia liluragarria izan arren. Ez dut zalantzarik sortu nahi hemen".

Gutenbergzale hil zen Jose Antonio, paperezko liburuen maitale eta miresle.

Bio-bibliografiak aztergai

-Jose Antonio Aranak asko idatzi zuen, eta gai askori buruz. Baina bere burua bio-bibliografotzat jotzen duenean, ez dabil ahoberokeriatan, ez. Biografiak zein bibliografiak oso gogoko zituen. Bietatik idatzi du asko. Jose Antonioren ekoizpenean hirutik bat baino gehiago izango da tankera honetako idazlana. *Brisas guerniquesas* aldizkari lokalean idatzi

zituenak kontabilizatu gabe, lan bio-bibliografikoen pisua %40tik gorakoa da. Are handiagoa da pisu hori testu masan, lan bio-bibliografikoak besteak baino sakonagoak eta luzeagoak baitira.

Bio-bibliografiaren sailean lanik sakonenak Jose Antonioren helduarokoak dira, Jose Antonioren sasoi betekoak, 80ko hamarkadan hasita. Lan arinagoetan entrenatua zegoen, 60ko hamarkadan, *Brisas guerniquesas* aldizkarian, baina bere hoberena 80tik aurrera ematen du, bai liburutan, bai hitzaurre ugaritan eta aldizkaritan, bereziki *Euskera* agerkarian.

-Urte horietan guztietan Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekaren buru zen Jose Antonio, bere irudi eta eredura egindako biblioteka. Zer talaia hoberik lan horietan sakontzeko? Jose Antonio bio-bibliografoari lana erraztuko zion Jose Antonio bibliotekariak. Bibliotekak berak eta bertako taldeak. Horregatik Jose Antonioren lanetan bereiztu behar dira bere-bereak diren lanak eta taldearen laguntzarekin osaturikoak. Nahiz eta bietan Jose Antonioren eragina bete-betea izan.

-Gustuko aldapan nekerik ez, esan ohi da. Baina ez da guztiz egia. "Labor penosa pero gratificante" idatzita utzi zuen berak, oker ez banago Bonaparteren bibliografiaren aurkezpenean.

Ohiko esaldia da, izan, idazle orori egokitzen zaiona, nahi

bada. Baina egiagoa da Jose Antonioren kasuan. Zergatik? Jose Antonioren lana, txikia izan, handia izan, ikerlana da beti, zehatza, artean argitaragabea eta ezezaguna maiz, dokumentatu beharrekoa. Jose Antonioren lanek ezaugarri propioak dituzte: informazio biografiko edo bibliografikoaren exhaustibotasuna, informazioaren zehaztasuna, informazio iturrien ugaritasuna, albo informazioen kontrastea, istorio edo mikrohistorien hornidura, oinarri dokumental sendoa artxibo, agiri, gutun eta liburu edo aldizkarietako irakurketa ugarietatik bildua. Inprobisazioaren kontrako muturrean kokatzen da Jose Antonio.

Jose Antoniok berak esana du bera ez dela literatoa: "Ni ez naiz nobela bat idazteko gai. Are gehiago naiz bibliografo eta biobibliografo, literaturgile baino". Bere baimenarekin harago noake: ez dela saiolari klasikoa ere, ez eta kazetaria, baizik eta ikerlaria. Are: ikerlari dibulгатzailea. Jose Antoniok ez du ikertzen aurkiturikoa ezagutzera emateko ez bada, sekula ez ezkutuan gordetzeko. Jarrera berbera izan du, ikerlari izan, bibliotekari izan: zabala, dokumentuak jendearen eskura uztekoa, ikerlanari besteek segida eman ziezaioten, belaunaldi berrietako ikerlariei ikerlana erraztekotan egin du berea aurrelana bailitzan.

Jose Antonioren bio-bibliografietako beste ezaugarri bat seinalatu gabe ezin dut itxi aurkezpen hau. Enpatia azpimarratu nahi dut. Gertutasun handiz hurbiltzen zaio biografiatuari, ez hotz, ez urrutiko, ez aseptiko, baina sekula

adulazioan, apologetikan edo panegirikoan erori gabe.
Biografiatuaren balio positiboak, ekarpenak, ahaleginak
lehenesten ditu etengabe, hori bai.

Bilbon, 2012ko urtarrilaren 27an

Joan Mari Torrealdei